

Talde-identifikazioa, barne-taldearekiko faboritismoa eta hautemandako homogeneotasun-maila testuinguru soziopolitiko desberdinetan garatzen ari diren haur eta nerabeengan

Luixa Reizabal
Jose Valencia
EHUko irakasleak

Maritxu Jimenez
UEUko
Psikologia
Sailburua

Arantza del Valle
Gironako
Unibertsitateko
irakaslea

Almudena García
Malagako
Unibertsitateko
irakaslea

Artikulu honetan, testuinguru soziopolitiko eta linguistiko desberdinetan hazten ari diren haurren identitate nazionala nola garatzen den aztertzen da. Lagina sei, bederatzi, hamabi eta hamabost urteko 922 haurrek osatzen zuten. Emaitzek, identifikazio subjektiboaren arabera, norbere taldearekiko faboritismoan desberdintasunak adierazten dituzte. Ez, ordea, hautemandako homogeneotasun-mailan, hauek ez baitira testuinguru guztietan behatzen. Adinari dagokionez, identifikazio-talde guztietako haurrek seigarren urterako jada beren taldea hobesten dutela ikusten da. Hobespen hori identifikazio-taldearen arabera areagotu, mantendu edo urritu egiten da.

This paper shows a research that explored the social construction of national identity in 922 children aged 6,9,12 and 15 years old growing up different socio-political and linguistic contexts. Results show differences in in-group favouritism depending on subjective identification, but not in perceived homogenisation, that doesn't change in all socio-political contexts. In relation to age, results show that children of all identification groups evaluate more positively their in-group by the age of six years old. This in-group favouritism increases, decreases or does not change depending on the identification group.

1. Sarrera

1.1. Ikerketaren testuinguru soziopolitikoak

Ikerketa hau hiru testuinguru soziopolitiko eta linguistiko ezberdinetan burutu da. Hain zuzen ere, Katalunia, Andaluzia eta Euskal Herrian. Ingurune horietan bizi diren pertsonak kategoria nazional desberdinekin identifikatzen dira. Batzuek beren burua soilik kataluniar/euskaldun/andaluziartzat jotzen dute, beste batzuk, aldiz, espainiarren taldearekin identifikatzen dira. Pertsona batzuentzat bi identitate horiek bateraezinak dira. Beste batzuentzat, berriz, bateragarriak.

1.2. Eremu teorikoa: Identitate Sozialari buruzko teoria eta Kategorizazio Sozialari buruzko teoria

Ikerketa honen eremu teorikoa Identitate Sozialari buruzko Teoriatik (*Social Identity Theory*, SIT) (Tajfel 1981; Turner, 1987; Hogg & Abrams, 1988; Oakes, Haslam & Turner, 1994) eta horren formulazio berria den Kategorizazio Sozialari buruzko Teoriatik (*Social Categorization Theory*, SCT) (Turner, Hogg, Oakes, Reicher & Wetherell, 1987; Oakes, Haslam & Turner, 1994) eratortzen da. Bi teoria horiek jendeak mundu soziala sailkatzeko erabiltzen dituen kategoriak hartzen dituzte abiapuntutzat. Pertsona batek bere burua horietariko kategoriaren batean sailkatzen duenean (klase soziala edo generoa, adibidez), eta kategoria horrekin subjektiboki identifikatzen denean, "identitate sozial" bat garatu duela esaten da. Talde bateko kide izatearen ezagutzatik eta taldekidetzat horrek subjektuarentzat duen esanahi emozionaletik eratortzen den norbere kontzeptuaren zatia da identitate soziala (Tajfel, 1978).

SITak eta SCTak diotenaren arabera, identitate sozial bat garatzeak zenbait ondorio kognitibo ditu. Alde batetik, kategoria sozial ezberdinak osatzen dituzten kideen arteko desberdintasunen areagotzea (*Talde arteko desberdintzapena* delako fenomeno) eta talde berdina osatzen duten kideen arteko berdintasunak areagotzeko joera (*Talde barneko homogeneizatzea*) gertatzen dira. Bestalde, barne-taldearekiko faboritismoa garatzen da. Gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta bere portaera hori lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa dagoenean, irudi positiboaren beharra, besteekin konparatuz, norberaren taldea hobestean islatzen da. Gogorapen baikor horrek, konparaketa-dimentsio egokietan, norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel, 1978).

Horrekin batera, SCTak dio taldeei buruzko estereotipoen edukiak eta talde jakin bati egozten zaion homogeneotasun-maila ere testuinguruaren arabera direla (Oakes *et al.* 1994). Teoria honek dio, alde batetik, barne-taldea ebaluatze-ko hautatu diren konparaketa-taldeen arabera, estereotipo-dimentsio ezberdinak erabil daitezkeela talde jakin bat deskribatzeko. Batzuetan *kanpo-taldearen homogeneotasun-efektua* delakoa gertatzen da. Horren ondorioz, kanpo-taldea homogeneoago eta estereotipatuago hautematen da (Oakes, Haslam eta Turner, 1994). Efectu hori honela azaldu ohi da: gizakia bere taldeko kideekin harremanetan jartzean, horien arteko desberdintasunak hautematen ditu, eta, ondorioz, barne-taldea aldakortasun-maila altuagoaz eta homogeneotasun-maila baxuagoaz hautematen du (Linville eta Jones, 1980). Horrela, *kanpo-taldearen homogeneotasun-efektua*

subjektuak bi taldeekiko duen kontaktu eta ezagutza-maila desberdinari egotzi ohi zaio (Linville *et al.* 1986, 1989). Kasu horietan, homogeneousazioari esker, subjektuak autoestima altuagoa lortuko luke, kanpo-taldea berdintsu, uniforme eta monotono hautemanez, barne-taldea aldakorrago, konplexuago eta hobetzat hartzen delako.

Hala ere, ikerketa berriagoek adierazitakoaren arabera, egoera jakin batzuetan, gizakiek kanpo-taldea barne-taldea baino aldakorrago hautemateko joera izan dezakete; fenomeno horri *barne-taldearen homogeneousotasun efektua* deitu zaio (Simon eta Brown, 1987; Simon eta Pettigrew, 1990). Fenomeno hori barne-taldea bere identitaterako garrantzitsua den dimentsio batean epaitua, edo identitatea mehatxupean dagoen egoerekin erlazionatuta dagoela dirudi (adibidez, taldea beste talde baten menpekotasun-egoeran dagoenean, edo beste talde batzuek baztertuta dagoenean, edo estatus-maila baxuagoa duenean...). Egoera horietan, barne-taldearen kohesioa areagotzeko, barne-taldea homogeneousago hauteman daiteke (Tajfel eta Turner, 1986). Gehiengo-egoeran dauden taldeek, berriz, ohiko eredia jarraituko lukete kanpo-taldea homogeneousago hautemanez (Simon eta Brown, 1987).

Eremu teoriko hau abiapuntutzat hartuta, ikerketa honetan ingurune desberdinetan garatzen diren haurren identifikazio subjektiboak aztertu nahi dira, eta identifikazio horiek haurrek barne-taldeari zein kanpo-taldeei buruz dituzten este-reotipo eta ebaluaketetan desberdintasunik eragiten duten ikertu nahi da. Hain zuzen ere, honako arazo hauek aztertzen dira:

1. Testuinguru desberdin hauetako bakoitzean garatzen ari diren haurrek euren burua kataluniar/euskaldun/andaluziartzat edota espainiartzat hartzen duten aztertu.
2. Barne-taldearekiko faboritismo-maila ikertu. Hain zuzen ere, zera espero da: alde batetik, euren burua talde kataluniar/euskaldun/andaluziarrarekin identifikatzen duten haurrek euren barne-taldea hobestea; bestalde, euren burua kataluniar/euskaldun/andaluziar-espainiartzat edo espainiartzat duten haurrek kataluniarrak/euskaldunak/andaluziarrak eta espainiarrak antzera ebaluatzea.
3. Identifikazio-talde ezberdinek beste taldeen inguruan hautemandako homogeneousotasun-mailak ere aztertu nahi dira. Hain zuzen ere, bere burua kataluniar/euskaldun-taldearekin identifikatzen duten haurrek euren taldeak beste taldeak baino homogeneousago hautematea espero da. Hipotesi hau, talde hauek menpekotasun-egoeran daudenez, euren identitatea mehatxatuta senti dezaketela dioen hipotesian oinarritzen da (Sachdev eta Bourhis, 1990). Euren burua talde espainolarekin edota talde andaluziarrarekin identifikatzen duten haurrei dagokienez, horiek beren taldeari homogeneousotasun-maila baxuagoa egozteko espero da. Hipotesi honen arrazoiketa hau litzateke: talde hauek kanpo-taldearen homogenizazioa autoestima positiboagoa lortzeko erabiliko lukete, kanpo-taldearekin konparatuz euren taldea era positiboago, aldakorrago eta konplexuagoan hautemango bailukete.


4. Azkenik, identifikazio nazional ezberdinak garatu dituzten hurrek talde desberdinei buruz egiten dituzten ebaluazioen eta adinaren arteko harremana aztertzen da.

2. Metodologia

2.1. Lagina

Lagina Katalunia, Andaluzia eta Euskal Herrian bizi diren 6, 9, 12 eta 15 urteko 922 subjektuk osatzen dute. Herri bakoitzeko subjektuen adinaren arabera sailkapena ikus daiteke 1. irudian.

1. irudia. Herri bakoitzeko subjektu-kopurua adinaren arabera



2.2. Prozedura

Datuak biltzeko tresnatzat galde-sorta erabili zen. Hori haur bakoitzari bakarka pasa zitzaion, bere eskolak horretarako utzitako gela lasai batean. Katalunian zein Euskal Herrian galde-sorta erantzuteko hizkuntza herrialde horietan erabiltzen diren hizkuntzak izan ziren (katalana/euskara eta gaztelania). Erabilitako hizkuntza umeak elkarrizketatzailearekin elkartzean bere kabuz erabili zuena izan zen. Galde-sortaren lehen bertsioa eta erantzun-txartelak ingelesez zeudenez, euskara eta gaztelaniara itzuli ziren, azken hizkuntza horretan dauden sexuaren arabera desberdintasunak kontuan hartuz. Bi itzulpenak konparatu egin ziren, eta agertu ziren desadostasunak eztabaida baten bidez bideratu ziren. Itzulpenak itzultzaile independente batek ingelesera itzuli zituen, eta azken itzulpen hori lehen bertsioarekin konparatu zen, itzulpen-prozesuak sor zitzakeen esanahi-aldaketak saihesteko. Behin adiskidetzako harremanak izan eta gero, umeari honako hau esaten zitzaion:

Begira, (umearen izena), neska-mutil askorekin hitz egitera etorri naiz. Haurrentzako liburu bat idazten saiatzen ari naiz eta nire liburua ondo egon dadin, komenigarria iruditu zait zure adineko pertsonekin hitz egitea. Horrela jakingo dut idazten ari naizen gauzei buruz dakizuena, pentsatzen duzuen edo sentitzen duzuen. Horrek esan nahi du zure benetako ideiak eta pentsamenduak direla balio dutenak. Ez dago erantzun zuzen edo okerrik eta nik galdetzen dizudan zerbait ulertzen ez baduzu, esan iezadazu lasai. Zu baino zaharragoak diren hurrekin ere hitz egin dut. Horregatik, zenbait galdera zail samarrak egingo zaizkizu. Baina beste batzuk errazagoak izango dira. Ez kezkatu zailak direnak ezin badituzu erantzun. Ados? Ezin baduzu erantzun, esan eta kito. Zer, lagunduko al didazu? Oso ondo, has gaitzen.

Elkarrizketatzailea, umeak ulertzeko arazorik edo bazuen, laguntzeko prest zegoen. Haurrek galde-sortari ordena berdinean erantzun zioten. Galde-sortari erantzuteko, erantzun-txartelak erabili ziren. Haurren erantzunetan eraginik ez izateko, elkarrizketatzaileek argibide idatzi batzuk jarraitzen zituzten.

2.3. Galde-sortan sartzen ziren aldagaiak

Galde-sorta, umearen datuez gain, honako aldagai hauek osatzen zuten:


2.3.1. Identifikazio subjektiboa

Haurren identifikazio subjektiboa haurrarentzat kategoria nazionalik garrantzitsuena da. Hori ezagutzeko, umeari 15 txartelez osatutako txartel-joko bat aurkeztu zitzaion. Haur kataluniar eta andaluziarrei aurkeztutako txartelak hauek izan ziren: 6 urte, 9 urte, 12 urte, 15 urte, neska, mutila, gironarra/malagarra (haurrak bizi ziren hiriak), kataluniarra, andaluziarra, espainiarra, europarra, ingelesa, frantsesa, italiarra eta alemaniarra. Haur euskaldunei aurkeztutako txartelak berdinak izan ziren kataluniarra, gironarra eta andaluziarra izan ezik, eta horien ordean euskalduna, donostiarra eta extremadurra izan ziren.

Elkarrizketatzaileak zoriz banatzen zituen txartelak mahai gainean, honako hau esanez: «Begira txartel hauek. Hitz hauek guztiak pertsonak deskribatzeko balio dute. Zeintzuk uste duzu balioko luketela zu deskribatzeko? Zure ustez, zeintzuk adierazten dute zu nolakoa zaren? Nahi dituzun guztiak aukera ditzakezu. Irakurtzen lagunduko al dizut?». Behin umeak txartelak aukeratu eta gero, elkarrizketatzaileak gainerako txartelak aparte jarri, eta umeak aukeratutakoak mahai gainean zabaltzen zituen zorizko ordena batean. Orduan, honako hau esaten zion: «Beraz, txartel hauek guztiak deskribatzen zaituzte. Zuk, txartel hauetatik bakarra aukeratu beharko bazenu zuretzat garrantzitsuena delako, zein aukeratuko zenuke?».

Kataluniarra/euskalduna/andaluziarra txartela *espainiarra* txartela baino garrantzitsuagozat aukeratu zuten haurrak kataluniar/euskaldun/andaluziar identifikazio-taldeetan sailkatu ziren. Herri bakoitzean garrantzitsuenezat *espainiarra* aukeratu zuten haurrak, berriz kataluniar-espainiar, euskaldun-espainiar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeetan sailkatu ziren. identifikazio subjektiboaren eta adinaren arabera dagoen subjektu-kopurua ikus daiteke 2. irudian.

2. irudia. Identifikazio subjektiboa eta adinaren araberako subjektu-kopurua



2.3.2. Beste taldeen ebaluaketa eta homogeneotasun-maila

Esan bezala, ikerketa honen helburua haurrek hiru talderi buruz dituzten estereotipoak aztertzea da. Hain zuzen ere, Katalunian eta Andaluzian kataluniar, andaluziar eta espainiarrei buruzko hautemateak ikertu ziren; Euskal Herrian, aldiz, euskaldun, extremadurar eta espainiarrei buruzkoak. Euskal Herrian eta Katalunian dauden identifikazio-taldeen gain, extremadurarrak eta andaluziarrak aukeratzeko arrazoia ingurune horietako etorkin gehienen jatorria Espainiar Estatuko bi eskualde horietan kokatzean datza. Andaluzian kataluniar taldea aukeratzeko arrazoia, berriz, zonalde horretako emigrazioaren zati handi bat Kataluniara joan ohi izana da.

Talde hauen estereotipoak eta homogeneotasun-maila aztertzeko, prozedura hau erabili zen. Umeari arestian aipaturiko hiru taldeen inguruko deskribaketak eskatzen zitzaizkion, horretarako zorizko ordenan testu hau zuten 12 txartelez osatutako txartel-joko bat aurkeztzen zitzaion: *Zikinak, Garbiak, Atseginak, Ezatseginak, Argiak, Leloak, Alferrak, Langileak, Alaiak, Goibelak, Zintzoak, Iruzurtiak*. Termino horiek aukeratu ziren, beste ikerketa batzuetan ikusi izan delako haurrei talde nazionalak deskribatzeko eskatzen zaienean beren kabuz termino horiek erabiltzen dituztela (Lambert & Klineberg, 1967; Barrett & Short, 1992). Behin txartelak erakutsi eta gero, honako hau esaten zitzaion:

Hemen pertsonak deskribatzen dituzten hitz batzuk dituzu. Guk esan dezakegu pertsona bat (lehenengo txarteleko hitza) dela eta beste bat (bigarren txarteleko hitza) dela. Bai? Beno, ba nahi dudana zera da: zuk banan-banan txartel guztiak aztertzea eta zuretzat euskaldunak deskribatzen dituzten haiek separatzea. Egin al dezakezu, mesedez? (umeari txartel joko osoa eman). Euskaldunak deskribatzen dituzten hitzak separatu itzazu.

Ebaluaketa-indizea honela lortu zen: lehenik, umeak dimentsio bakoitzean erabilitako izenlagun bakoitzari puntuaketa bat eman zitzaion (1= umeak aukeratutako izenlaguna negatiboa bazen, 2= umeak biak aukeratzen bazituen, 3= aukeratutako izenlaguna positiboa bazen). Azkenik, puntuaketa horiek batu eta gero umeak erabilitako dimentsio-kopuruarekin zatitu zen. Homogeneotasun- edo estereotipia-indizea, berriz, umeak talde bakoitza deskribatzeko erabilitako izenlagunak batu eta batura horren emaitza umeak talde bakoitza deskribatzeko erabilitako dimentsio-kopuruarekin zatituz lortu zen.

3. Emaitzak

3.1. Barne-taldearekiko faboritismo-maila

Hasteko, identifikazio subjektiboaren ondorioz barne-taldearekiko faboritismoa dagoen aztertzeko, eta Katalunia eta Andaluziako haurrek eta Euskal Herrikoek talde ezberdinak ebaluatzen zituztela kontuan izanik, MANOVA motako bi analisi burutu ziren. Lehenengoan faktoretzat kataluniar, kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeak hartu ziren, eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Bigarren MANOVA analisisan, berriz, faktore bezala euskaldun eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeak eta menpeko aldagaitzat extremadurar, euskaldun eta espainiar taldeen ebaluaketak.

Lehenengo analisisan, talde ezberdinen ebaluazioetan identifikazio subjektiboaren efektu multibariatua lortu zen ($F_{(9,1995)} = 36.893$; $p < .001$). Efektu unibariatuek kataluniar ($F_{(5,665)} = 115.053$; $p < .001$), andaluziar ($F_{(5,665)} = 20.469$; $p < .001$) eta espainiar ($F_{(5,665)} = 15.212$; $p < .001$) taldeen ebaluaketetan izan ziren. *Scheffe test*-ek kataluniarren ebaluaketan izandako efektua honako arrazoi hauengatik gertatu zela adierazi zuten: alde batetik, kataluniar eta andaluziar identifikazio-taldeek egindako ebaluaketen arteko desberdintasunaren ondorioz ($M=2.8$ eta $M=1.97$); bestetik, kataluniar eta andaluziar-espainiarrek egindako ebaluaketen arteko desberdintasunagatik ($M=2.8$ eta $M=2.11$); gainera, kataluniar-espainiar eta andaluziar taldeek egindako ebaluaketen arteko desberdintasunagatik ($M=2.67$ eta $M=1.97$) eta, azkenik, kataluniar-espainiarrek eta andaluziar-espainiarrek ($M=2.67$ eta 2.11) egindako ebaluaketen arteko desberdintasunengatik.

Andaluziarren ebaluaketan identifikazio subjektiboaren efektuari dagokionez, talde kataluniarrek egindako ebaluazioak ($M=2.38$) eta beste identifikazio-talde guztiek egindako ebaluazioen artean desberdintasun esanguratsuak daudelako gertatzen dira desberdintasunak (kataluniar-espainiar identifikazio-taldea $M=2.57$; andaluziarra $M=2.74$ eta andaluziar-espainiarra $M=2.74$).

Espainiarren ebaluaketan identifikazio subjektiboaren efektua, berriz, kataluniar identifikazio-taldeak egindako ebaluaketak ($M=2.48$), beste guztien ebaluazioekin konparatuta, esanguratsuki desberdinak direlako gertatzen da (kataluniar-espainiar identifikazio-taldea $M=2.69$; andaluziarra $M=2.73$ eta andaluziar-espainiarra $M=2.77$).

Kataluniar identifikazio-taldearen kasuan ebaluazioen batezbestekoen arteko desberdintasunak esanguratsuak ziren jakiteko, hiru T-TEST parekatu burutu

ziren. Análisi horiek adierazi zuten kataluniar eta andaluziar ($T_{(343)} = 12.128$; $p < .001$), espainiar eta kataluniar ($T_{(349)} = -9.938$; $p < .001$) eta andaluziar eta espainiarren ($T_{(343)} = 2.493$; $p < .05$) ebaluaketen batezbestekoen arteko desberdintasuna esanguratsua dela.

Kataluniar-espainiar identifikazio-taldearen kasuan, ebaluazioen batezbestekoen arteko desberdintasunak esanguratsuak ziren ikusteko ere hiru T-TEST parekatu ziren. Análisi horiek adierazi zuten ez zegoela desberdintasun esanguratsurik ez kataluniar eta andaluziarren ($T_{(117)} = 1.814$; es.) ebaluaketen artean, ez eta espainiar eta kataluniarren ebaluaketen kasuan ere ($T_{(117)} = 0.309$; es.). Bai, ordea andaluziar eta espainiarren ebaluaketen arteko desberdintasunaren kasuan ($T_{(115)} = 2.367$; $p < .05$).

Andaluziar identifikazio-taldearen kasuan, ebaluazioen batezbestekoen arteko desberdintasunak esanguratsuak ziren ikusteko ere hiru T-TEST parekatu egin ziren. Análisi horiek adierazi zuten kataluniar eta andaluziar ($T_{(114)} = -10.508$; $p < .001$) eta espainiar eta kataluniarren ($T_{(113)} = 10.229$; $p < .001$) ebaluazioen arteko desberdintasunak esanguratsuak zirela, ez, ordea andaluziar eta espainiarren ($T_{(118)} = 0.10$; es.) ebaluazioen artekoak.

Andaluziar-espainiar identifikazio-taldearen kasuan ebaluaketen batezbestekoen arteko diferentziak esanguratsuak ziren ikusteko, aurrekoetan egindako análisis berdinak egin ziren. Emaitzek adierazi zuten kataluniar eta andaluziar ($T_{(95)} = -8.174$; $p < .001$) eta espainiar eta kataluniarren ($T_{(95)} = 8.151$; $p < .001$) ebaluazioen arteko desberdintasunak esanguratsuak zirela, baina ez andaluziar eta espainiarren ($T_{(105)} = 1.761$; es.) ebaluaketen artekoak.

Lehenago esaten genuen bezala, bigarren MANOVA análisisan euskaldun eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeak hartu ziren faktore moduan. Menpeko aldagai gisa extremadurar, euskaldun eta espainiar taldeen ebaluazioak. Análisi horrek ebaluazioetan identifikazio subjektiboaren efektu multibariatua adierazi zuen ($F_{(3,178)} = 7.834$; $p < .001$). Efektu unibariatua espainiar ($F_{(1,180)} = 8.469$; $p < .01$) eta euskaldunen ($F_{(1,180)} = 14.945$; $p < .001$) ebaluazioetan soilik izan zen esanguratsua. Bi MANOVA análisisen emaitzak, konparagarriak direnez, taula bakarrean agertzen dira (1. taulan).

Euskaldun identifikazio-taldearen ebaluaketen batezbestekoen arteko desberdintasunak esanguratsuak diren jakiteko, hiru T-TEST parekatu egin ziren. Emaitzek adierazi zuten euskaldun eta extremadurarrei ($T_{(151)} = 8.891$; $p < .001$) eta espainiar eta euskaldunei ($T_{(164)} = -8.886$; $p < .001$) buruzko ebaluaketen arteko desberdintasuna esanguratsua zela, ez, ordea, extremadurarrei eta espainiarrei ($T_{(148)} = -0.626$; es.) buruzko ebaluaketen artekoa.

Azkenik, euskaldun-espainiar identifikazio-taldearen ebaluaketen batezbestekoen arteko desberdintasunak esanguratsuak ziren jakiteko egin ziren hiru T-TEST parekatuen emaitzek adierazi zuten euskaldun eta extremadurar ($T_{(31)} = 3.260$; $p < .01$) eta extremadurar eta espainiarren ($T_{(164)} = 3.676$; $p < .001$) inguruko ebaluaketen arteko desberdintasunak esanguratsuak zirela, baina ez espainiar eta euskaldunen ($T_{(31)} = 0.273$; es.) gaineko ebaluaketen artekoak.

1. taula: identifikazio-taldeek talde ezberdinen inguruan egindako ebaluaketan puntuaketen batezbestekoak

Identifikazio-taldeak	Ebaluatutako taldeak			
	Kataluniarra	Andaluziarra/ Extremadurarra	Espainiarra	Euskalduna
Kataluniarra	2.8	2.38	2.48	_____
Kataluniar- -espainiarra	2.67	2.57	2.69	_____
Andaluziarra	1.97	2.74	2.73	_____
Andaluziar- -espainiarra	2.11	2.74	2.77	_____
Euskalduna	_____	2.34	2.29	2.9
Euskaldun- -espainiarra	_____	2.2	2.71	2.68

1. taulan ikus daitekeenez, euskaldun eta kataluniar identifikazio-taldeetako haurrek euskaldunak eta kataluniarrak modu positiboagoan ebaluatzen dituzte. Bestalde, euskaldun-espainiar, kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeetako haurrek euskaldun/kataluniar/andaluziar eta espainiarrei buruz egindako ebaluaketak oso antzekoak direla ere ikus daiteke.

3.2. Hautemandako homogeneotasun-maila

Identifikazio subjektiboaren ondorioz talde ezberdinek hautemandako homogeneotasun-mailan desberdintasunik dagoen aztertzeko bi MANOVA egin ziren. Lehenengoan kataluniar, kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeak hartu ziren faktore gisa, eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Bigarren analisian euskaldun eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeak hartu ziren faktoretzat eta menpeko aldagaitzat euskaldun, espainiar eta extremadurar taldeen ebaluaketak.

Lehenengo analisian, identifikazio subjektiboaren ondorioz, identifikazio-taldeek hautemandako homogeneotasun-mailan efektu multibariatua behatu zen ($F_{(9,2004)} = 10.981$; $p < .001$). Efektu unibariatua kataluniar ($F_{(5,652)} = 19.752$; $p < .001$), andaluziar ($F_{(5,796)} = 19.439$; $p < .001$) eta espainiar ($F_{(5,951)} = 22.460$; $p < .001$) taldeei egotzitako homogeneotasun-mailan egon ziren.

Scheffe Test-ak kataluniar taldearen inguruan hautemandako homogeneotasun-mailaren efektua kataluniar identifikazio-taldearen eta gainerako taldeen arteko desberdintasunagatik gertatzen dela adierazi zuen. Hain zuzen ere, Kataluniar eta kataluniar-espainiar identifikazio-taldeen artean ($M=1.09$ eta $M=1.16$); kataluniar eta andaluziarren artean ($M=1.09$ eta $M=1$); kataluniar eta andaluziar-espainiarren artean ($M=1.09$ y $M=1$); kataluniar-espainiar eta andaluziarren artean ($M=1.16$ eta $M=1$) eta azkenik, kataluniar-espainiar eta andaluziar-espainiarren artean ($M=1.16$ eta $M=1$).

Espainiar taldeari egotzitako homogeneousotasun-mailan aurkitutako efektuari dagokionez, kataluniar eta andaluziar ($M=1.14$ eta $M=1$), kataluniar-espainiar eta andaluziar ($M=1.17$ eta $M=1$) eta kataluniar-espainiar eta andaluziar-espainiar ($M=1.17$ eta $M=1$) identifikazio-taldeen arteko desberdintasunengatik suertatuko litzateke.

Azkenik, andaluziar taldeari egotzitako homogeneousotasun-mailaren efektua, kataluniar eta andaluziar ($M=1.13$ eta $M=1$), kataluniar eta andaluziar-espainiar ($M=1.13$ eta $M=1$), kataluniar-espainiar eta andaluziar ($M=1.13$ eta $M=1$) eta kataluniar-espainiar eta andaluziar-espainiar ($M=1.13$ eta $M=1$) identifikazio-taldeen artean ikusitako desberdintasunengatik litzateke.

Kataluniar identifikazio-taldearen kasuan, ebaluatutako talde ezberdinen inguruan hautemandako homogeneousotasun-mailaren desberdintasunak esanguratsuak diren jakiteko hiru T-TEST parekatu egin ziren. Emaitzek, kataluniar eta andaluziar taldeen hautemandako homogeneousotasun-mailan ($T_{(344)} = -3.862$; $p < .001$) eta espainiar eta kataluniar taldeen homogeneousotasun-mailan ($T_{(350)} = 5.048$; $p < .001$) behatutako desberdintasunetan efektu esanguratsua behatu zen. Andaluziar eta kataluniar taldeen kasuan, berriz, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu ($T_{(344)} = 0.647$; es).

Kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldearen kasuan, talde ezberdinen inguruan hautemandako homogeneousotasun-mailan desberdintasun esanguratsuak dauden jakiteko ere, 3 T-TEST parekatu egin ziren. Emaitzetan efektu esanguratsurik ez zegoela ikusi zen; beraz, identifikazio-talde hauek, espainiarrak, andaluziarrak eta kataluniarrak, antzeko homogeneousotasun-mailarekin hautematen dituzte.

Bigarren MANOVAri dagokionez, ez zen identifikazio subjektiboaren arabera desberdintasun esanguratsurik behatu hautemandako homogeneousotasun-mailan ($F_{(1,150)} = 3.487$; es.); beraz, bai euskaldun identifikazio-taldeak bai eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeak ere, espainiar, extremadurar eta euskaldunak antzeko homogeneousotasun-mailarekin hautematen dituztela ondoriozta daiteke. Bi MANOVA horien emaitzak konparagarriak direnez, 2. taulan aurkezten dira.

2. taula: hautemandako homogeneousun-mailari buruzko emaitzak

Identifikazio- -taldeak	Ebaluatutako taldeak			
	Kataluniarra	Andaluziarra/ Extremadurarra	Espainiarra	Euskalduna
Kataluniarra	1.09	1.13	1.14	_____
Kataluniar- -espainiarra	1.16	1.13	1.17	_____
Andaluziarra	1	1	1	_____
Andaluziar- -espainiarra	1	1	1	_____
Euskalduna	_____	1.03	1.04	1.05
Euskaldun- -espainiarra	_____	1.07	1.09	1.11

Laburbilduz, emaitzek ez dute hautemandako homogeneousun-mailan desberdintasun esanguratsurik adierazten, kataluniar identifikazio-taldean izan ezik, horrek bere taldea homogeneousuago hautematen baitu.

3.3. Adinaren araberrako desberdintasunak ebaluaketetan

Identifikazio-talde bakoitzak egiten dituen ebaluaketetan adinaren araberrako desberdintasunik dagoen jakiteko, bi MANOVA egin ziren. Lehenengoan, alde batetik, kataluniar, kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeak, eta, bestetik, adin-taldeak (6, 9, 12 eta 15 urte) hartu ziren aldagai aske bezala. Menpeko aldagaitzat, berriz, kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Bigarren MANOVAn, alde batetik, euskaldun eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeak eta, bestetik, adin-taldeak hartu ziren aldagai aske gisa. Menpeko aldagai gisa, ordea, euskaldun, espainiar eta extremadurar taldeen ebaluaketak.

Lehenengo analisisian, identifikazio subjektiboaren ($F_{(9,1959)} = 34.895$; $p < .001$) eta adinaren ($F_{(9,1959)} = 4.682$; $p < .001$) efektu multibariatua lortu zen. Horrekin batera, elkarrekintza efektu multibariatua ere behatu zen talde desberdinen ebaluaketetan ($F_{(9,1959)} = 4.682$; $p < .001$). Bigarren analisisian, berriz, identifikazio subjektiboaren efektu multibariatua lortu zen ($F_{(3,172)} = 5.002$; $p < .01$), ez, ordea, adinaren efektu multibariatutik ($F_{(9,522)} = 0.454$; es.) ez eta elkarrekintza efektutik ere ($F_{(9,522)} = 0.638$; es.). Jarraian identifikazio-talde desberdinen araberrako emaitzak aurkeztuko dira.

3.3.1. Adinaren araberrako desberdintasunak ebaluaketetan: haur kataluniarrek

Haur kataluniarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan, adinaren araberrako desberdintasunik dagoen jakiteko, MANOVA bat egin zen. Aldagai aske gisa adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte) eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Analisisi horrek taldeen ebaluaketetan adinaren efektu multibariatua esanguratsua eman zuen

($F_{(9,1017)} = 4.372$; $p < .001$). Horrekin batera, kataluniarren ($F_{(3,349)} = 4.829$; $p < .01$), andaluziarren ($F_{(3,341)} = 3.163$; $p < .05$) eta espainiarren ($F_{(3,347)} = 4.672$; $p < .01$) ebaluaketetan adinaren efektu unibariatu esanguratsua aurkitu zen. Kataluniarrek egindako ebaluaketetan adinak duen eraginaren zergatia ezagutzeko *Scheffe Test-ak* egin ziren, eta horiek adierazitakoaren arabera, eragin hori 6 eta 15 urteko haurren ebaluaketen artean dauden desberdintasunen ondorio da ($M=2.7$ y $M=2.9$). Andaluziarrei buruzko ebaluaketetan, adinaren arabera desberdintasunak aztertzeke egin ziren *Scheffe test-ek*, berriz, horiek 6 eta 12 urteko haurren ebaluaketetan dauden desberdintasunen ondorio direla adierazi zuten ($M=2.3$ y $M=2.55$). Bukatzeko, espainiarrei buruzko ebaluaketetan behatutako adinaren arabera desberdintasunei dagokienez, *Scheffe test-ek* adierazi zuten hauek 9 eta 15 urteko haurren ebaluaketetan dauden desberdintasunengatik agertzen direla ($M=2.6$ y $M=2.3$). Analisi horien emaitzak 3. taulan agertzen dira.

3. taula: haur kataluniarrek beste taldeen inguruan egindako ebaluaketak

Ebaluatutako taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Kataluniarra	2.7	2.8	2.8	2.9
Andaluziarra	2.3	2.4	2.5	2.3
Espainiarra	2.4	2.6	2.5	2.3

Taula horretan ikus daitekeenez, bere burua kataluniarren haurren oso adin goiztiarretik ebaluatzen dute modu positiboagoan beren taldea. Euren taldeari eta beste taldeei buruzko ebaluaketen arteko desberdintasunak areagotu egiten dira 15 urterekin. Espainiar eta andaluziarren ebaluaketetan agertzen diren desberdintasunak, berriz, adinarekin urritu egiten dira.

3.3.2. Adinaren arabera desberdintasunak ebaluaketetan: haur kataluniar-espainiarrak

Haur kataluniar-espainiarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan adinaren arabera desberdintasunak dagoen jakiteko, MANOVA bat egin zen. Aldagai aske gisa adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte) eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Analisi horren emaitzek ebaluaketetan adinaren joerazko efektu multibariatua adierazi zuten ($F_{(9,336)} = 1.843$; $p < .06$).

Haur kataluniar-espainiarren kasuan, adinaren efektu unibariatua andaluziarrei buruzko ebaluaketetan behatu zen ($F_{(3,112)} = 3.818$; $p < .05$), eta *Scheffe test-ek* eragin hori 6 eta 12 urteko haurren ebaluaketen arteko desberdintasunen ondorio dela adierazi zuten ($M=2.3$ eta $M=2.7$). Ez da adinaren efekturik aurkitzen ez kataluniar ($F_{(3,114)} = 1.374$; es.) ez eta espainiarrei buruzko ebaluaketetan ere ($F_{(3,114)} = 0.11$; es.). Emaitzak 4. taulan aurkezten dira.

4. taula: haur kataluniar-espainiarrek beste taldeei buruz egindako ebaluaketak

Ebaluatutako taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Kataluniarra	2.6	2.7	2.6	2.7
Andaluziarra	2.3	2.5	2.7	2.6
Espainiarra	2.6	2.7	2.7	2.7

Taulan ikus daitekeenez, haur kataluniar-espainiarrek espainiarrak eta kataluniarrek antzera ebaluatzen dituzte adin guztietan. Kataluniar eta espainiarren ebaluaketetan dauden desberdintasunak adinarekin urritu egiten dira. Haur horiek andaluziarrei buruz egiten dituzten ebaluaketak adinarekin positiboago izatera jotzen dute, horrela kataluniar, espainiar eta andaluziarrei buruz egiten dituzten ebaluaketetan dauden desberdintasunak urritu egiten dira.

3.3.3. Adinaren arabeko desberdintasunak ebaluaketetan: haur andaluziarrak

Bere burua andaluziartzat duten haurrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan, adinaren arabeko desberdintasunik dagoen jakiteko ere MANOVA bat egin zen. Aldagai aske gisa adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte), eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. Analisi horretan ez zen efektu multibariatuturik lortu ($F_{(9,330)} = 1.542$; es.) ez eta efektu unibariatuturik kataluniar ($F_{(3,111)} = 2.166$; es.), andaluziar ($F_{(3,117)} = 1.816$; es.) eta espainiarrei ($F_{(3,115)} = 2.158$; es.) buruzko ebaluaketetan. Analisi horren emaitzak 5. taulan aurkezten dira.

5. taula: haur andaluziarrek egindako ebaluaketak

Ebaluatutako Taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Kataluniarra	2	2.2	1.9	1.8
Andaluziarra	2.6	2.8	2.7	2.7
Espainiarra	2.5	2.8	2.7	2.6

5. taulan ikus daiteke haur andaluziarrek adin guztietan, andaluziar eta espainiarrei buruz egiten dituzten ebaluaketak kataluniarrei buruzkoak baino zer-txobait positiboagoak direla. Espainiar, andaluziar eta kataluniarren ebaluaketen arteko desberdintasunak 9 urtetik gora areagotzen hasten dira. Andaluziar eta espainiarrei buruzko ebaluaketei dagokienez, bi taldeek antzera ebaluatzen dituzte adin guztietan.

3.3.4. Adinaren araberako desberdintasunak ebaluaketetan: haur andaluziar-espainiarrek

Haur andaluziar-espainiarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan, adinaren araberako desberdintasunik dagoen jakiteko ere, MANOVA bat egin zen. Aldagai aske gisa adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte) eta menpeko aldagaitzat kataluniar, andaluziar eta espainiar taldeen ebaluaketak. MANOVAK talde ezberdinek egindako ebaluaketetan adinaren efektu multibariatua erakusten du ($F_{(9,276)}=3.493$; $p<.001$), bai eta kataluniar ($F_{(3,92)}=5.3$; $p<.01$), andaluziar ($F_{(3,102)}=2.989$; $p<.05$) eta espainiarrei ($F_{(3,107)}=3.985$; $p<.01$) buruzko ebaluaketetan efektu unibariatua ere. *Scheffe test*-ek kataluniarrei buruzko ebaluaketetan behatutako efektua 6 eta 12 urteko haurren ebaluaketetan dauden desberdintasunek sortutakoa dela adierazten dute ($M=2.4$ eta $M=1.8$). Andaluziarrei buruzko ebaluaketetan ematen den eraginari dagokionez, *Scheffe test*-ek 6 eta 15 urteko ($M=2.8$ eta $M=2.51$) eta 9 eta 15 urteko ($M=2.8$ y $M=2.5$) haurren ebaluaketen arteko desberdintasunen ondorio dela adierazten dute. Azkenik, espainiarrei buruzko ebaluaketetan behatutako efektuari dagokionez, *Scheffe test*-ek 9 eta 15 urteko ($M=2.8$ y $M=2.5$) eta 12 eta 15 urteko ($M=2.8$ y $M=2.5$) haurren ebaluaketetan agertzen diren desberdintasunen ondorio dela adierazten dute. Analisi horren emaitzak 6. taulan aurkezten dira.

6. taula: haur andaluziar-espainiarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketak

Ebaluatutako taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Kataluniarra	2.4	2.3	1.8	1.9
Andaluziarra	2.8	2.8	2.8	2.5
Espainiarra	2.8	2.8	2.5	2.5

6. taulak haur andaluziar-espainiarrek, adin guztietan, andaluziarrak eta espainiarrak, kataluniarrak baino hobeto ebaluatzen dituztela erakusten digu. Espainiar, andaluziar eta kataluniarren ebaluaketen arteko desberdintasunak 9 eta 12 urte bitartean areagotzen dira. Andaluziar eta espainiarren ebaluaketei dagokienez, antzekoak dira adin guztietan.

3.3.5. Adinaren araberako desberdintasunak ebaluaketetan: haur euskaldunak

Haur euskaldunek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan adinaren araberako desberdintasunik dagoen jakiteko, MANOVA bat egin zen. Aldagai aske gisa, adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte) eta menpeko aldagaitzat euskaldun, extremadurar eta espainiar taldeen ebaluaketak. MANOVAK talde ezberdinei buruzko ebaluaketetan adinaren efektu multibariatirik ez dagoela adierazten du ($F_{(9,438)}=0.946$; es.). Extremadurar ($F_{(3,148)}=0.528$; es.), espainiar ($F_{(3,163)}=0.916$; es.) eta euskaldunei ($F_{(3,168)}=0.305$; es.) buruzko ebaluaketetan ere ez da aurkitzen adinaren efektu unibariatirik. Analisi horren emaitzak 7. taulan aurkezten dira.

7. taula: haur euskaldunek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketak

Ebaluatutako taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Extremadurarra	2.3	2.3	2.4	2.3
Espainiarra	2.4	2.3	2.2	2.1
Euskalduna	2.9	2.9	2.9	2.6

7. taulan ikus daitekeenez, haur euskaldunek, oso adin goiztiarretik, euren taldea beste bi taldeak baino modu positiboagoan ebaluatzen dute. Euren taldearen eta beste taldeen ebaluaketen arteko desberdintasunak mantendu egiten dira urteetan zehar. Gaztetxoek, hala ere, espainiarrak extremadurarrak baino modu positiboagoan ebaluatzen dituzte. Adinduagoen artean, berriz, aurkako joera behatzen da.

3.3.6. Adinaren arabera desberdintasunak ebaluaketetan: haur euskaldun-espainiarrak

Haur euskaldun-espainiarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketetan adinaren arabera desberdintasunik dagoen jakiteko ere, MANOVA bat egin zen. Aurreko kasuan bezala, aldagai asketzat adin-talde ezberdinak hartu ziren (6, 9, 12 eta 15 urte) eta menpeko aldagaitzat euskaldun, extremadurar eta espainiar taldeen ebaluaketak. MANOVAK adinaren efektu multibariatuturik ez dagoela adierazten du ($F_{(9,84)} = 0.353$; es.). Extremadurar ($F_{(3,28)} = 0.263$; es.), espainiar ($F_{(3,31)} = 0.677$; es.) eta euskalduneri ($F_{(3,32)} = 0.413$; es.) buruz egindako ebaluaketetan ere ez da aurkitzen adinaren efektu unibariatuturik. Analisi horren emaitzak 8. taulan aurkezten dira.

8. taula: haur euskaldun-espainiarrek talde ezberdinei buruz egindako ebaluaketak

Ebaluatutako taldeak	Adin-taldeak			
	6 urte	9 urte	12 urte	15 urte
Extremadurarra	2.2	2.2	2	2.4
Espainiarra	2.8	2.8	2.6	2.6
Euskalduna	2.6	2.6	2.8	2.8

8. taulan ikus daitekeen bezala, haur euskaldun-espainiarrek 6 eta 9 urte bitartean espainiarrak euskaldunak baino hobekiago ebaluatzeko joera dute. Hala ere, 12 urterekin joera hori aldatu egiten da. Hiru taldeen ebaluaketen arteko desberdintasunak adinarekin urritu egiten dira.

4. Ondorioak

Emaitzek adierazten dute Katalunian eta Euskal Herrian bizi diren haurrek bi identitate garatzeko joera dutela. Batak euskaldun/kataluniarrak eta espainiarrak bereizten ditu, besteak, aldiz, ez ditu desberdintzen. Andaluzian bizi diren haurrek, aldiz, espainiarrak eta andaluziarrak bereizten ez dituen identitate bat garatzen dutela ematen du.

Barne-taldearen favoritismoari dagokionez, espero bezala, emaitzek erakusten dute euskaldun, kataluniar, andaluziar eta espainiarrei buruzko ebaluaketetan, identifikazio subjektiboaren arabera desberdintasunak daudela, eta ebaluaketa norberaren taldeari dagokionean positiboagoa dela. Hain zuzen ere, haur euskaldun eta kataluniarrek, euskaldunak eta kataluniarrak modu positiboagoan ebaluatzen dituzte. Haur euskaldun-espainiarrek, kataluniar-espainiarrek, andaluziarrek eta andaluziar-espainiarrek, berriz, euskaldunak, kataluniarrak, andaluziarrak eta espainiarrak antzera ebaluatzen dituzte. Emaitza horiek bat datoz identitate sozialaren teoriaren planteamenduekin. Aipatu bezala, teoria horren arabera, gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta, ondorioz, bere portaera hori lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa ematen denean, irudi positiboaren beharra besteekin konparatuz norberaren taldea hobestean islatzen da. Gogorapen baikor horrek, konparaketa-dimentsio egokietan, norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel, 1978).

Talde ezberdinei buruz hautemandako homogeneotasun-mailari dagokionez, zenbait kasutan identifikazio subjektiboaren arabera aldatzen dela ikusi dugu. Hain zuzen ere, kataluniar, kataluniar-espainiar, andaluziar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeek kasuan. Ez, ordea, euskaldun eta euskaldun-espainiar identifikazio-taldeek kasuetan, horietan ez baita desberdintasunik aurkitu. Efektu horiek bi azalpen izan ditzakete. Lehenengoa, "identitate ez ziurra" (Tajfel, 1982) eta bigarrena "kobariazio hipotesiarena" (Deschamps, 1984). Bi hipotesi horiek kontuan izanik, talde arteko harremanek ikerkuntza gehiago beharko luketela uste dugu. Gainerako identifikazio-taldee dagokionez, aurkeztu zitzaizkien hiru taldeak aldakortasun-maila berdinarekin hauteman zituzten. Emaitza hauek bat datoz identitate sozialaren teoriarekin, talde hauek kataluniar/eus-

1. I.O.: "Identitate ziurra"-ren azalpenari dagokionez, ebaluaketetan ikusi dugun bezala (ikus 1. taula), Andaluzian garatzen diren haurren barnean, andaluziar eta andaluziar-espainiarren artean ez zegoen desberdintasunik; beraz, pentsa daiteke bi identitateak ziurrak direla. Kataluniarren eta euskaldunen barnean, berriz, desberdintasunak zeuden. Gainera, euskaldunen kasuan, barne-taldearen eta kanpo-taldearen arteko ezberdintasun ebaluatiboak areagotu egiten dira kataluniarrekin konparatuz. Zentzu horretan, pentsa daiteke euskaldunen kasuan kataluniarren kasuan baino identitate ez ziur garaiagoa ematen dela. Beraz, kataluniarren barnean kataluniar eta kataluniar-espainiarren ebaluaketen artean ezberdintasunak zeuden bitartean, euskaldunen kasuan identitate euskalduna eta identitate euskaldun-espainiarra ez ziurra garatuko zutela pentsa daiteke. Horrela, bi taldeek garatu dituzte "ekintza sozialeko" estrategiak, taldeak bere "gutxiengo-egoera" bermatzeko. Horrela, bada, ulergarria da homogeneotasun-maila berdina hautematea. Antzeko efektua aurkitu zen Irlandan "Gutxiengo Bikoitzeko Efektua"-rekin (Cairns, 1982).

2. I.O.: "Kobariazio hipotesia"-ren kasuan arazoa larriagoa litzateke. Azken finean, kategorizazio-prozesua konplexuagoa izango litzatekeela planteatuko luke, bertan talde arteko eta talde barneko loturak dimentsio anitzeko erlazioak liratekeelako. Horrek suposatuko luke kategorizazio-prozesua era sinple batean landu izan dela; beraz, homogeneotasun-dimentsioaren barnean sakondu beharko litzatekeela funtsezko dimentsioen "efektuak" azaltzeko (Doise, 1988).

kaldun/andaluziar eta espainiarren artean bereizten ez dutenez, talde hauen arteko aldakortasun-mailan ere ez baitute desberdintasunik hautemango.

Azkenik, ikusi ahal izan dugu talde ezberdinen ebaluaketetan adinak duen eragina identifikazio-talde batetik bestera aldatu egiten dela. Kataluniar eta andaluziar-espainiar identifikazio-taldeen kasuan, adinaren araberrako desberdintasunak aurkitu dira, baina identifikazio-talde kataluniar-espainiarren kasuan eragin hori andaluziarrei buruzko ebaluaketetan soilik aurkitu da. Andaluziar, euskaldun eta euskaldun-espainiarren identifikazio-taldee dagokienez, ez da adinaren eraginik aurkitu.

Esker ona

Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV 227.231-ha030/98), Eusko Jaurlaritzak (PI1999-103) eta INTASEk (OPEN-97-1363) emandako diru-laguntzei esker burutu ahal izan da. Gure esker ona adierazi nahi diegu ikerketaren diseinuan lankide izan diren honako pertsona hauei: Martyn Barrett, Mark Bennett, Ignasi Vila, Tatiana Riazanova, Valentina Pavlenko, Giorgi Kipiani eta Rauf Karakazov-i.

Bibliografia

- Alvarez, I. & Vila, I. (1993): "Nación, Identidad y conflicto", *Mientras Tanto* **52**, 37-56.
- Apalategi, J.; Balluerka, N. & Isasi, X. (2001): *La idea de nación en los niños Vascos*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Apalategi, J. (2002): *Haurren nazioak*. Solasaldiak, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Barrett, M. & Short, J. (1992): "Images of European people in a group of 5-10 year old English schoolchildren", *British Journal of Developmental Psychology* **10**, 339-363.
- Cairns, E. (1982): "Intergroup conflict in Northern Ireland", in H. Tajfel, *Social Identity and Intergroup Relations*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Deschamps, J.-C. (1984): "Identité Sociale et différenciations catégorielles", *Cahiers de Psychologie Cognitive* **4**, 449-474.
- Doise, W. (1988): "Individual and Social Identities in Intergroup Relations", *European Journal of Social Psychology* **18**, 99-111.
- Giménez, A.; Canto, J.M.; Fernández P. & Barrett, M. (1999): "La identificación social como regulador del estereotipo. Lo que piensan los niños andaluces". *Boletín de Psicología* **64**, 81-99.
- Lambert, W.E. & Klineberg, O. (1967): *Children's Views of Foreign Peoples: A Cross-National Study*, Appleton-Century-Crofts, New York.
- Linville, P.W. & Jones, E.E. (1980): "Polarized appraisals of outgroup members", *Journal of Personality and Social Psychology* **38**, 689-703.
- Linville, P.W.; Fischer, G.V. & Salovey, P. (1989): "Perceived distributions of the characteristics of ingroup and outgroup members: Empirical evidence and computer simulation", *Journal of Personality and Social Psychology* **57**, 165-188.
- Linville, P.W.; Salovey, P. & Fischer, G.V. (1986): "Stereotyping and perceived distributions of social characteristics: An application to ingroup-outgroup perception", in J.F. Dovidio & S.L. Gaertner (arg.), *Prejudice, discrimination and racism*, FL: Academic Press, New York eta Orlando.

- Oakes, P.J.; Haslam, A. & Turner, J.C. (1994): *Stereotyping and Social Reality*, Basil Blackwell, Oxford.
- Sachdev, I. & Bourhis, R.Y. (1990): "Language and social identification", in D. Abrams & M.A. Hogg (arg.), *Social Identity Theory: Constructive and Critical Advances*, Harvester Wheatsheaf, Hemel Hempstead, 211-229.
- Siguan, M. (1994): *España Plurilingüe*, Alianza, Madrid.
- Simon, B. & Brown, R.J. (1987): "Perceived intragroup homogeneity in minority-majority contexts", *Journal of Personality and Social Psychology* **53**, 703-711.
- Simon, B. & Pettigrew, (1990): "Social Identity and Perceived group homogeneity", *European Journal of Social Psychology* **20**, 269-286.
- Tajfel, H. (Ed.) (1981): *Human Groups and Social Categories: Studies in Social Psychology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Tajfel, H & Turner, J. (1986): "The social identity theory of intergroup behavior", in S. Worchel & Wg. Austin (arg.), *Psychology of Intergroup Relations*, Nelson, Chicago.
- Turner, J.C.; Hogg, M.A.; Oakes, P.J.; Reicher, S.D. & Wetherell, M.S. (1987): *Rediscovering the Social Group: A Self-Categorization Theory*, Basil Blackwell, Oxford.